

Noiztik du Hondarribiarrak txapela buruan?

Hondarribia, 20. zk., 1988-04: 7.

Los Faisanes deritzan irlara 1660an Luis XIV. etorri zenean, Baionako arraunlariak *txapel gorritz* omen zituzten estaliak buruak, eta ez omen da historikoki alderdi honetako hondarribiarrak buruan zer zeramakitenaren notiziarik geratu.

Ez litzateke gehiegi suposatzea euskaldun txapel bera eramango zutela buruan, eta *beltza* seguraski.

Txapela, seguru.

Hara euskaldunon txapelaz jaso ditudan datu jakingarri batzu:

1) Ontzat ematen da, *lehen txapelak*, Pirineotako artzaiak eskuz ehotzen zituztela. 2) José Berruezo kazetari eta ikerlariak dionez, Tafallako Santamaria elizan *1426an* gertatutako milagro batetan parte hartu zuen txapela, berak ikus ahal izan zuenez gero, zezenaren odol kolorez tintatua zen. 3) Gero, *1549an*, eta Arturo Campión jaunak dionez (Euskariana, XI, 190 or.). Nafarroako Enrike Iri Gramont-eko jaunak ongietorria egin zionean, 2.000 euskaldun txapel beltzez eratutako tropaz inguratua zegoen. 4) Madoz historigile nafarrak dionez, *1800an* baztandarrek zuten txapela (baina txapela beti!) urdina zen. 5) Berry-ko Dukesak *1826an* Hondarribiari egin zion bisita ondoren Donibane Lohitzunera itzuli zenean, txapela zeraman buruan, kronistek diotenez, kolorerik aipatzen ez badigute ere. 6) Lehenengo karlistadako gerra bizian ari zirela, Baldomero Espartero general konstituzionalak, *proklama batez txapela debekatu egin zuen*. Konstituzionaren aurkakoak, arerioak!, zirenak jazten zutelako; hara bada noiztik den euskal txapela Espainiko Konstituzionaren ezta! 7) Dudarik gabe. Zumalakarregik egin zion txapelari propagandarik handiena; lastima, gazteegi hil zela! 8) Zabalkundea, berriz, txapelari Tolosako Elosegitarrek egin zioten bigarren gerra karlistan baino lehentxio eskuz egiten hasi zirenean; eta 1933an dagoeneko 4.500 txapel egiten zituzten makinaz egunero.

Hemen ez zen orain prolema txapelak egitea, txapel hauntzat buruak aurkitzea baino!

9) Charles Henningsen militar ingelesak, Zumalakarregiren ofiziala eta lagun mina zenak, txapelari bere liburuan *Basque cap* deitzen dio, eta "euskal probintzietako 'gorra borobil nazionala' bezala kontuan hartzen".

Hau nahikoa ez balitz, euskaldunok txapela sortu dugula baieztatzera iritxi gabe ere, bada nahiko txapela gure erara munduan zehar zabaldu dugula baieztatzeko, hara hemen beste Europako herriek aitortzen dutena:

Frantsesek: "Bëret basque" deitzen diote; italiarrek: "Beretto dei Basqui"; ingelesak: "Basque cap", esan bezala; alemandarrek: "Baskische platte mütze", eta espainarrek: "Boina".

Kolorez, berriz, ugaritzen doa!

Baina euskaldunena beltza da errespetoko ekintzetarako; gorria edo zuria gerretako bengantzetarako.

Gutxi gora-behera.

Hondarribiarrak txapela buruan betidanik izan duela esatea ez da pekatu larriegia izango; eta Los Faisanes irlara eramango zutena gorria eta beltzaren arteko aukera egin dezake edozeinek!, ez baitakigu historioak gorde duen gertakizun hura jaigirokoa izan zen ala seriogoa dan beste zerbaitera makurtua.